



Ondorengo adierazpena Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadila proposatzen dut, horrela adostu baita Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluarekin.

AZAROAK 25- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu. Agerian utzi du bizitza zaurgarria dela eta haren zaintza gure lehenetsua izan behar dela. Indarkeria matxista jasaten duten milaka emakumeek oso ondo dakite hori, gure artean denbora gehiegi daraman pandemia bat jasaten ari baitira.

Testuinguru horretan, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskeengan. Jendartearen aitortpen eta elkartasun osoa merezi dute. Gogoan dugu, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Errealitate sozial larria da, denoi interpelatzen gaituena, ezin dugu eta ez dugu beste alde batera begiratu behar. Erakundeok erantzukizun berezia dugu horretan, are gehiago, udalok, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundeak izanik.

Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu eta borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean. Bide horretan **Ondarroako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:**

Udal honek ez du murrizketarik egingo 2021eko berdintasun-aurrekontuetan eta beharrezkoak diren partidak handituko ditu, aurrerantzean adierazten diren errekurtsio, proiektu eta ekintzen indartzea, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa bermatzeko.

Udal honek, indarkeria matxistan zuzen aritzen diren sail eta profesionalen arteko elkarlanaz eta instituzioen arteko koordinazio egokiaren errefortzuaz arduratuko da. Hortaz, Ondarroako Udalak konpromisoa hartzen du **berraztertze**ko TRATU TXARREN ETA SEXU INDARKERIA KASUETARAKO



DAUKAN PROTOKOLOA, EMAKUMEEI EGIN BEHARREKO HARRERA HOBETZEKO; eta horretarako, **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak** arreta-prozesu osoaren **erdigunean** jarriko du, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko.

Pandemiaren garaian sortu ziren tokiko zaintza-sareak babestuko ditu, bai eta, oro har, herri-kolektiboen lana ere, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sentsibilizazioko ekintza komunitarioak indartzeko eta bultzatzeko, egungo egoerara egokituta.

Emakumeen ahalduntzeari eta gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak indartuko ditu, etorkizuneko indarkeria-egoerak eragozteko funtsezko tresnak diren aldetik. Horretarako Etxelila, Emakumeentzako jabeakuntza eskola zein Udal hezkidetzak egitasmoan nahitaezko baliabideak esleituko ditu, gaur egungo osasun egoerari egokitutakoak.

Bukatzeko, bat egiten dugu azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta herritarrei ere dei egiten diegu mobilizazioetan parte har dezaten.

Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

ONDARROAKO ALKATEA